



# Uda batez Montaignerekin

**Antoine Compagnon**

**Euskaratzailea:** Joxan Elozegi

**Bilduma:** Saiakera

**Generoa:** Saiakera

**Formatua:** 14 x 20,50 cm.

**Orrialdeak:** 176

**Koadernaketa:** paperezko azala


**Argitalpen data:** 2026/06/03

**ISBN:** 978-84-9868-978-5

**SALNEURRIA (BEZ gabe): 19,71 €**

**SALNEURRIA (BEZ barne): 20,50 €**

GOGOETA, FILOSOFIA, ERLIJOA, GERRA,  
BOTEREA, ADISKIDETASUNA



## Sinopsia

Duda-mudatan sobera luzatu gabe onartu zuen Antoine Compagnon idazle, irakasle eta akademiari frantsesak *France Inter* kate ezagunak 2012ko udan, uztail eta abuztuko hiletan, Michel de Montaigneri buruz egunero aurkeztuko zen irrati-saio bat prestatzeko gonbita. Esperientzia hartatik sortu zen tratatu burutsu bezain entretenigarri hau, *Uda batez Montaignerekin*. Iradokizun pindartsuz beteriko gogoeta bizien eskutik datorkigu berrogei kapitulutan banatua den liburu hau eta, haren bitartez, aukera paregabea eskaintzen die Compagnonek Montaigneren lana ezagutzen ez duten irakurleei haren distira bereziaren berri izan dezaten, eta haren obraren indarra, bizitasuna eta gaurkotasun iraungiezina ere ekarriko dizkie gogora izen hori horren arrotz ez dutenei.

Biziberritu egin ditu Compagnonek Montaigneren gogoetak, askok harengan itxuratu nahi izan duten idazle ermitaua bazter utzi eta berariaz ekin dio pentsamolde konplexua eta analisirako gaitasun harrigarria ageri dituen pentsalari nortasun berezi honi, Bepizkundeko pertsonaia handi honi. Bordeleko alkate izan zen Montaigne, ez zien bere garaiko eginkizunei bizkar eman eta adorez heldu zien une zailetan bizi izan zituen kezka eta arazoei. Hogei urtean zehar idatzi zituen bere *Entseuak*, eta denboratik ateko gaiak hartu zituen haietan bereziki aintzat. Erlijioak, gerrak, botereak eta adiskidetasunak auzitan jarritako gai handiak bezala, giza jendearen eguneroko ezdeuskeria ñimiñoak ere gogoan harturik, gizaki izateak zeinahi arotan esan nahi duen guztiaren gaineko gogoeta hunkigarria eskaintzen digute Montaigneren *Entseuek*.

## Egileaz



**Antoine Compagnon (Brusela, 1950)**

Idazle eta saiakeragilea da Antoine Compagnon, Frantziako Akademiako kidea, Collège de Franceko irakasle emeritua eta Columbiako Unibertsitateko irakaslea, «Uda batez» bildumako lan ugariaren egilea da, eta horien artean dago *Uda batez Montaignerekin*.